

Irudia: Ibai Gandiaga

“Postmodernitatearen gogoeta eredugarria da gaur egun ere”

Alberto Ustarrozekin solasean



Ula Iruretagoiena *

Alberto Ustarroz 1977. urtetik Donostiako Goi Eskola Teknikoko irakaslea da, eta 1997. urtetik aurrera Proiektuetako Katedratikoa. Donostiako Arkitektura Eskolaren sortzaileenetako bat dugu

Arkitektura postmodernoa entzun, eta zer datorkizu burura?

Arkitektura postmodernoa hitza ez da batere adierazkorra garai hartako pentsamendua definitzeko, desegokia eta murritzua dela deritzot. Gaur egun, belaunaldien arteko erreakzioa dela-eta, arkitektura postmodernoa hitza mespretxuz erabili ohi da. Garai hartan pasio handiz murgildurik izan ginenon pentsamenduari atxikitutako arinkeriak betetako irakurketa honek sakonki tristatzen nau. Gure aldarrikapenak ongi ulertuak izan ez zirela agerian uzten du honek. Mugimendu postmodernoan parte hartutako arkitektoek komunean zera zuten, hiriarren eta arkitekturaren inguruko berreskurapenean sinesten zutelako, publikotasunaren nagusitzea pribatutasunaren gainera. Egungo krisialdi ekonomiko eta ideologikoan, inoiz baino gehiago, garai hartako balioak berreskuratzea premiazkoa dela uste dut.

Jarrera kritiko horren aurrekariak italiar neorealismoa edo hirietako gune historikoen berreskurapen lanetan jardun ziren hainbat arkitekto izan daitezke, besteak beste, Gardella, Albini, Ridolfi, Rogers, eta egun ahazturik dugun eta 60ko hamarkadako espainiar arkitektoengan (Oiza, Peña, Fernández del Amo, Sota, Bohigas...) eragin sakona izan zuen Xaverio Muratore-ren hirietako ikerlanak.

Garai horretan Donostian antolatutako ziren “Semanas de Arquitectura” jardunaldietan izan zinen? Nola bizi zenituen?

1972. urtean arkitektura ikasketak bukatu eta kezka berdina partekatzen genituen lagun talde bat, Arkitekto Elkargoaren ekitaldi kulturalak bultzatzeko grinarekin hasi ginen. Nafarroan Manuel Iñiguez, Patxi Biurrun eta hirurok lanean hasi ginen, gipuzkoarrekin batera. Lankidetzaren ondorioz, “Semanas de Arquitectura” Donostian eta “Victor Eusa Hirigintza Ikastaroak” Iruñean suertatu ziren.

Donostiako jardunaldiak benetan emankorrak gertatu ziren, hitzaldi eta mahai-inguruetan arkitekturaren oraina eta etorkizunaz hitz egiteko parada izan genuen, hain beharrezkoak diren eztabaida-iturri izanik. Jardunaldiok

gainera, Europako eta Estatuako arkitekto esanguratsu eta garaiko abangoardiaren bilgune bilakatu ziren, eta bertan gaur egun arte luzatzen diren adiskidetzak egin genituen. Gu ere gonbidatuak izan ginen gerora, Frantzia, Italia eta Estatu Batuetara hitzaldiak emateko.


Zer dela-eta arkitektura postmodernoa eragin berezia izan zuen Euskal Herrian?

Denbora eta espazio berean hainbat gertakizun bildu ziren; erregimen aldaketarekin batera gizarteak baikortasun garaia bizi zuen egoera berri bat sortzearen alde, eta **Euskal Herrian ginen arkitekto gazteok, indarrak bateratuz garaiko beharretara egokitzat jotzen genuen arkitektura eta hiriarren apustu irmoari ekin genion**. Aipatu behar da gainera, egiteko horretan Arkitekto Elkargoaren babes osoa jaso genuela, orduan elkargoek bere gain hartzen baitzuten aldaketa politikoa, sozial eta kulturalen eginkizuna eta Xabier Unzuurrungaga Euskal Herriko Elkargoaren dekanoa zen aldi berean. Honekin guztiarekin, apaltasunez esango nuke, tentsio kulturalera garaia lortu genuela, eta Donostiako arkitektura bizitakoaren ondorio eredugarria du.


Zergatik arkitekto postmodernoa izandakoak, egun ukatzen dute izan izana? Non da arkitektura pentsamendu honen ospe txarra?

Egia da mugimendu arkitektoniko hartan izandako hainbatek gaur egun aurkako arkitektura defendatzen dutela, uneko modari eusteko edo komenentzia estrategiari jarraiki; horrelako jarrerak mugimendu guztietan azaltzen dira dena dela.

Mugimendu postmodernoaren teoriak ezkertiarrik dira, Italiatik eratorritako ideiak batik bat, marxismoan jaio izan dira, publikotasunaren aldarrikapen argia bultzatzen du; horrela, gaur eguneko neoliberalismoan horrelako defentsa batek kirtentzat jotzen da. **Hiriarren diziplinak, non arkitekturaren tipologiak eta morfologiak bat egiten duten, kapitalak agintzen duen gizarte ereduaren ez du lekurik**.



1. PATIO 2. COMEDOR 3. LA TORRE-LA CHIMENEA 4. COCINA-ALMACEN 5. BAR 6. JARDINES...



SECCION 1-2

Irudiak: Alberto Ustarroz eta Manuel Iñiguez

Nola laburbilduko zenituzke arkitektura postmodernoaren ekarpenak?

Mugimendu postmodernoaren pentsamendutik hiriaren balorazioa eta berreskurapen irizpideak nabarmenduko nituzke; arkitektura hiriaren testuingurura beharturik dago, eta horren eredugarri dira Europako hiri tradizionalak. **Hiria arkitektura amalgama guztiak osatzen dute eta bizikidetasun orekatuan bizi dira emaitza ederrak emanez.**

Zinez uste dut Mugimendu Modernoaren gabeziarik larriena hiri tradizionala alderatzea izan zela. Ziur naiz Modernitatearen arkitekto-maisuek ez zituztela haien pentsamenduaren emaitza latzak irudikatzen. Hiriaren suntsipena ekarri zuten, hain zuzen ere nik aldarrikatzen dudana hiriaren ideia.

Garai horretako zorrotasun geometrikoaren falta sumatzen al duzu gaur egun?

Arkitekturaren ikuspegia azken urteotan arras aldatu da; arkitektura iragarpen-produktu bihurtu da, eta objektu autonomo, ikono edo egilearen ikur gisa aurkezten da. Arkitektura honek ez dio txertatzen den lekuaren kultura eta testuinguruari jaramonik egiten, globalizazioaren ildoaren atzetik. Hiria, politikari zahutzaileren eskutik, kaos bat da kasu askotan. Kaosa teatroan edo fikzio-esparruetan dibertigarria izan daiteke, baina hirian ez du tokirik. Hiria oinordetzan uzten dugun espazio eraikia da, denboran zehar belaunaldi desberdinek elkarlanean egindako emaitza da, eta bertan egindako esperimenduek ondorio larriak uzten dituzte.

Nire ustez, arkitekto asko egoera horretan galdurik dira, artistaren irudia antzeratu nahian; baina arkitektoaren lana eta artista plastikoarena desberdinak dira, arkitektoak gizarte-erantzukizuna baitu. Eraikin bat egilearen adierazpen pertsonalaren erreflexua izatea, gutxitan da justifikagarria, eta hori dela-eta, emaitza anitz keinu edo karikatura iragarriak

bestetik ez dira. Arkitektura pentsatzeko garaian hiria aintzat hartzeak, berriz, gogoeta berezia eskatzen du; izan ere, Txina edo Abu Dhabi etorkizuneko hirien adierazle badira, ez gaude bide egokian inolaz ere. Arkitektoak egiten duenaren gaineko konpromisoa behar du ezinbestean.

Garai horretatik interesatzen zaizun eraikinen bat aipatzekotan, zein azpimarratuko zenuke?

Aitortu beharra dut Giorgio Grassi arkitektoak bere artelanetan agertzen duen pentsamendu eta emaitzaren arteko koherentzia bereziki miresten dudala. Haren lanetatik Saguntoko Teatroa azpimarratuko nuke. Testuinguru gertutik ez nuke inor beste baten gainetik aukeratu nahi, ez bainaiz ranking eta zerrenden aldekoa.

Bestalde, eraikin bat balioan jartzeko, 10 urteko bizitza izan behar du gutxienez nire ustetan. Horregatik antzinako arkitekto-maisuen lanetan ikasketa handiak aurkitzen ditut, arkitekto anonimoen arkitektura tradizionalan adibidez. Gaur egungo aldizkarietako arkitektura gutxitan da nire interesekoa. Arkitektoa, hiriaren eraikitzailea ere izan deneko historiaren garaia, arkitekturaren garai oparoenak direla esango nuke.

Jakin badakit esaten dudana zaharkitutzat jo daitekeela, eta arkitektoei forma bereziak eta nobedadeko materialak sortzea eskatzen zaizkiola, baina forma arraro bat asmatutakoan, askotan bere- berean ahitzen da.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, **gaur egun arkitektoaren erantzukizun sozialaren falta sumatzen dudala eta, oro har, jarrera apala nabari dudala, errealitatearekiko kritikarik gabekoa**, batez ere arkitekto gazteen belaunaldian. Gazteei baitagokie, etika eta estetika biltzea, epikotasunaren ausardiaz. Epika baita batek nahi duenaren borrokaren adierazlea.

* Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUKO irakaslea da.

